



ANPUTAZIO TXIKIRAKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA AMPUTACIÓN MENOR

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

B. INFORMAZIOA:

Direnak direlako arrazoiengatik zango batera (edo haren parte batera) odolik iristen ez bada, gangrena gertatzen da. Infekzio larri bategatik ere gerta daiteke. Oineko behazetan gelditu daiteke, edo zangoan gora aurrera egin.

Ebakuntza honen bitartez, erasanda dauden oinaren parteak mozten dira.

Normalean, anestesia lokala (behatzean edo orkatilan ziztatuz) edo epidurala/espinala (gerritik beherakoa) erabiltzen da.

Anestesistek erabakiko dute hori; haiek azalduko dizkizute aukerak, arriskuak eta konplikazioak.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Zaurian konplikazioen bat gerta daiteke (hematomak, likidoa metatzea -seromak-, edo infekzioak).

Odola oineraino iristen ez bada, ez da orbainduko agian, eta beste ebakuntza motaren bat egin beharko da arazo hori konpontzeko.

Infekzio handi bat badago, zauria irekita utzi beharko da, sendaketak egiteko.

Ulertzen eta onartzen dut ebakuntza hau ez dela beharbada behin betikoa izango, eta, bilakaera nolakoa den, goragoko anputazio bat egin beharko didatela agian.

Arazorik ez badago ere, medikuak azaldu dizu denborarekin zera gerta daitekeela:

- Anputaturiko parte oraindik baduzula sentituko duzu beharbada (gorputz-adar fantasma); luzaroan iraun dezake sentipen horrek.
- Barne-zolaren bat erabili beharko duzu agian, hobeto ibiltzeko.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergia, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMACIÓN:

Cuando por distintos motivos deja de llegar sangre a una pierna (o una parte) se produce una gangrena. También puede ocurrir por una infección grave. Puede quedar localizada a nivel de los dedos del pie o avanzar hacia arriba.

Esta intervención consiste en cortar las zonas del pie que se encuentran afectadas.

Lo normal es que la anestesia sea local (pinchando en el dedo o el tobillo) o epidural/espinal (de cintura para abajo).

Depende de los anestesiólogos y ellos le explicarán las posibilidades, sus riesgos y sus complicaciones.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

Puede haber alguna complicación a nivel de la herida (hematomas, líquido acumulado (seromas), o infecciones).

Puede no cicatrizar porque no llega la sangre hasta el pie, y necesitar otro tipo de operaciones para intentar resolver este problema.

Puede ser necesario dejar la herida abierta para hacer las curas si hay una infección importante.

Comprendo y acepto que esta operación puede no ser definitiva, y que, según cómo evolucione, es posible que se necesite una amputación más arriba.

Aunque no haya ningún problema, el médico le ha explicado que con el tiempo:

- Puede quedar la sensación de tener aún la zona amputada (miembro fantasma), y puede mantenerse durante mucho tiempo.
- Puedo necesitar utilizar algún tipo de plantilla para caminar mejor.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSEÑOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Egoera honetan EZINEZKOA da alde hori oneratzeari. Teknika honen ordezkotako aukera bakarra zera litzateke: oinaren parte hori moztu ez, eta tratamendua eta sendaketak egiten jarraitzea. Hala jokatuz gero, lesioak handiagoak egiteko arriskua dago eta gerta liteke, ondorioz, goragoko anputazio bat egin behar izatea.

E.-RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F. ALTERNATIVAS:

En la situación actual NO es posible recuperar esa zona. La única alternativa a esta técnica sería no cortar esa parte del pie y continuar con tratamiento y curas, con la posibilidad de que las lesiones se hagan mayores y después sea necesaria una amputación más arriba.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente**Pazientearen izen-abizenak**

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/El/La Médico**Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha



Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha